

BURUKETAK

Eiderren urtebetetzea izan da orain dela gutxi. Bere urtebetze festarako goxoki poltsa batzuk prestatu nahi ditu festara joango direnei emateko. 12 lagun joango dira festara eta Eiderrek 5 pakete gusanito sartu nahi ditu poltsatxo bakoitzean. Erosketak egitera joan denean, poltsa handi bakoitzak 50 pakete zeuzkala ikusi ditu.

Poltsa handiaz gain, zenbat pakete solte erosi beharko ditu bere poltsatxoak prestatzeko?

Erantzuna: _____ pakete solte erosi beharko ditu.

Mirenen osaba baten enpresan urteko gastuak aztertu dituzte. Motor baten pieza berezi bat sortzeko, hilabete bakoitzean 2.575 euro gastatzen dituzte eta 25 pieza ekoizten dituzte.

Zenbat kostatzen zaie pieza bakoitzak?

Zenbat gastatuko dute urtebete batean produktu guztiak sortzeko?




Erantzuna (1): _____ euro balio ditu produktu bakoitzak.

Erantzuna (2): _____ euro gastatuko dituzte urtebete batean.

Ekaik lagun baten baserrian pasatu du asteburua. Etxera bueltatu baino lehen, bere lagunari arrautzak biltzen lagundu dio. Lehendabizi, sei arrautzak gordetzeko 25 ontzi bete dituzte. Gero, 12ko beste hiru ontzi bete dituzte. Bukatzeko, Ekairantzat beste dozena bat jaso dute.

Zenbat arrautz jaso ditu guztira Ekaik bere lagunarekin batera?



Erantzuna : _____ arrautz guztira jaso ditu Ekaik.